

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA

BASAURIKO UDALA



VII. Plangintzaldia
2023-2027

VII. PLANGINTZALDIA (2023-2027)

*Hizkuntza- eskubideak
herritarrenak dira, eta
obligazioak
administrazioarenak*

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA.

BASAURIKO UDALA

ATARIKOA

Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan maila juridiko bereko bi hizkuntza ofizial ditugun arren, eguneroko jardunean ez daude egoera berean. Desoreka hori kontuan hartuta, Basauriko Udalak euskara sustatzeko hainbat ekintza abian jarri beharko ditu, bai herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko, bai gure erakundeetan euskararen erabilera bultzatzeko. Izan ere, legediak argi eta garbi esaten du hizkuntza-eskubideak herritarrenak direla; eta obligazioak, ostera, gureak, administrazioenak.

Hizkuntza-politika egiteko beharrian hori planen bitartez gauzatzen dugu aspalditik.

VII. PLANGINTZALDIARI dagokion plana dugu honako hau.

Basauriko Udalak garatu beharreko plan estrategikoaren iraupena bost urtekoa izango da: 2023ko urtarilaren 1ean hasi eta 2027ko abenduaren 31n amaitu.

Plan hau 2023an hasi behar zen, baina Eusko Jaurlaritzak aplikazio informatikoak berriro behar izan dituenez (**SAREGIN**), **administrazio guztiei urtebeteko luzamendua eman digu plan onartzeko.**

Horrez gain, aurreko plana indarrean egongo da, **Udalbatzak eta erakunde bakoitzeko gobernu-organismoek hura ordeztzen duen plan berria onartu arte.**

Plan honek, gure abiapuntuko egoera zein den aztertu ondoren, zehaztu du plangintzaldirako helburuak zeintzuk izango diren, baita zelako emaitzak espero ditugun bitarte hori igarotakoan ere. Gure ustez, bai finkatutako helburuak bai aurreikusitako emaitzak lortuak dira; baina, aldi berean, erronka dira Udalarentzat.

Plangintzaldiko abiapuntuko egoerari antzemateko, diagnostiko zehatza egin dugu. Horretarako, **VI. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa** erabili dugu; izan ere, emaitza horiei esker jakin dugu zertan diren gaur egun gure adierazleak, eta bost urterako aurreikuspenak egin ahal izango ditugu. Dena den, bosturteko honetan, kudeaketari lotutako adierazle berriak izango ditugunez, diagnostiko hori zenbait informazio berriekin osatu eta egokitu beharko dugu.

Erakundearen argazkia zein den jakiteko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) gure esku jarritako **SAREGIN** aplikazioa informatikoa erabili ahal izan dugu. Horrek ahalbideratu digu **diagnostiko kuantitatibo sistematizatua egitea.**

Bestalde, orain arte erabilitako kudeaketa sisteman ere **hutsuneak** izan dira: esate baterako, askotan, planei jarraipena egiteko ardura Udaletik kanpoko enpresen eskuetan utzi izan dugu, eta ebaluazioak aldian behin egiten direnez, unean uneko datuak falta izan zaizkigu behin baino gehiagotan.

Erronkari arrakastaz ekiteko, **bi izan dira plan hau diseinatzeko zutabeak:**

.- **Hizkuntza Politika Sailak** (HPS) plangintzaldi honetarako gure esku jarritako **hainbat tresna**.

.- **Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak** ezarritako helburuak eta berrikuntzak, bete beharrekoak direnak.

HPSK GURE ESKU JARRITAKO TRESNA HORIEK GUZTIAK SISTEMATIKA BERRI BATEN INGURUAN ERAIKITA DAUDE: KEMEN.

KEMEN (*Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako*) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak VII. Plangintzaldi honetarako berariaz landu duen **marko estandar berria da**, eta hizkuntza ofizialen kudeaketa erakundeetako kudeaketa orokorrean txertatzeko beharrezanean du oinarria; alde horretatik, **KEMEN** izan da gure erabilera plana egiteko baliatu dugun tresna. Marko berri hau, jakina, **BIKAIN**ekin lerrokatuta dago.

OTSAILAREN 22KO 19/2024 DEKRETUA, EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKOA

2024ko otsailaren 22an, Eusko Jurlaritzak Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko dekretu berria onartu zuen. Dekretu horrek indargabetu egin du Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen zuen 86/1997 Dekretua.

Administrazio eta sektore publiko guztiek bete beharreko dekretu berri honek **euskararen normalizazioan eta hizkuntza-eskubideetan aurrera egitea du helburu**.

Berrikuntza batzuk ere ekarri dizkigu dekretuak, besteak beste,

- **Euskal sektore publiko osorako irismena** da. Alegia, ez bakarrik gobernuak, aldundiek eta udalek bete beharreko dekretua.
- Begirada jarri nahi du erabileran: 30 urte daramatzagu administrazioako langileen gaitasuna ahalbideratzen, eta bada garaia **“gaitasun praktiko errealer”** salto egiteko, hau da, langileek egin duten ahalegina dagokien hizkuntza eskakizuna lortzeko erabileran islatzeko.
- **Hizkuntza eskakizunak (HE) egiaztatzeako sistema berria**, hizkuntza-erabilerarekin lotutakoa: eskakizunen simetrikoak eta asimetrikoak; oposizio-azterketa euskaraz eginez, egiaztatzea hizkuntza eskakizuna; euskaraz egiten den lana egoki frogatuz gero, egiaztatzea baita ere. Horiek guztiak **IVAP hasiko da kudeatzen 2025. urtetik aurrera**.

Edozein modutan ere, **euskara planak arrakastatsuak izateko**, plana bera izateaz gain, beste baldintza batzuk ere bete behar dira halaberharrez. Alde batetik, **euskararen kudeaketarako batzorde bat** sortu beharra dago, agintari politikoek, agintari teknikoek eta langileek osatutakoa, zeharkakoa, eta

erabakitzeko ahalmena duena. **Batzorde horren ardura** izango da, besteak beste, kudeaketa orokorraren barruan txertatzea euskararen kudeaketa, planak diseinatzea, abian jartzea eta ebaluatzea. Zer esanik ez arduradun politikoez lidergoa eta gidaritza erakutsi behar dute euren arloetako hizkuntza-politikan.

Bestetik, **prozesua kudeatzeko sistematika bat jarri behar dugu martxan**: erakundearen egoera edo abiapuntua aztertu, helburuak adostu, helburu horiek lortzeko ekintzak antolatu eta abian jarri eta, batez ere, prozesua aldi berean behin ebaluatu eta, beharrezkoa denean, egokitzapenak egin hasierako planteamenduan.

Amaitzeko, gure egin nahi izan ditugu Eusko Jaurlaritzak erakunde guztien eskura jarri duen plan estrategikoaren eredu jasotako **hausnarketak**:

*“Kontuan hartu behar da planak aurrera eramateko guztion **adostasuna, inplikazioa eta elkarlana** behar direla. Udalak konpromiso batzuk hartu behar ditu langileekiko, eta langileek (politikoez zein teknikariek) konpromiso batzuk hartu behar dituzte euskararen erabilerarekiko.*

*Ikus daitekeenez, aipatutako hiru elementu horiek: **egitura, sistematika eta adostasuna** kudeaketari dagozkio, kudeaketak eragin zuzena baitu erabileran; nolatan ere, ezin da ahaztu kudeaketa, berez, ez dela helburua, baizik eta lanabesa, benetako helburua lortzeko: **euskararen erabilera areagotzea***

Euskarak eguneroko praktikan lekua izan dezan, adostasuna, elkarlana, langileekiko komunikazioa eta hauen konpromisoa bultzatu behar dira.

*Bestalde, ardatz honen beste erronketako bat izango da zeharkako beste politika batzuekiko (berdintasuna, kalitatea, eta abar) elkarlana sustatzea; **normalizazio-politiken inplementazioa indartzeko, gainerako zeharkako politikekin batera.***

*Azkenik, esan beharra dago VII. Plangintzaldi honetan, zenbait langilek hartuko dutela ondo merezitako erretiroa, eta beste batzuk, aldiz, hasi egingo direla lanean aurrekoek utzitako lanpostuetan. Etorri berri gehienak, guztiak ez badira, euskaldunak izango dira, eta euskaraz lan egiteko eskubidea bermatu behar zaie, herritarrei edozein hizkuntza ofizialetan artatuak izateko eskubidea bermatu behar zaien bezalaxe. **Bihur ditzagun, denon artean, eskubide horiek errealitate!**”*

Aurrera jarraitu baino lehen, hiru ohar:

- **Lehena:** dokumentu honetan, Basauriko Udala aipatzen den guztietan ulertu behar da izen horren azpian daudela haren erakunde autonomoak. Izan ere, ataltzat hartu ditugu gure planaren baitan.
- **Bigarrena:** denbora gutxi barru, gure sozietate publikoei ere egokituko zaie plan estrategiko propioak diseinatzea, norberaren diagnostikoa eta hizkuntza egoera kontuan izanik.
- **Hirugarrena:** plan estrategikoak diseinatzeko eredu hau euskararen normalizazioari begira eginda dago, izan ere bistan da gaztelaniak ez duela horren beharrik; hori dela-eta, dokumentu honetan euskara honako edo halako esparruetan erabili behar dela esaten denean jakintzat ematen da esparru horietan gaztelania betidanik erabiltzen dela normaltasun osoz.

Otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 2. artikuluaaren arabera, plan honen **eragin-eremuak** Basauriko Udala eta bere erakunde autonomoak hartzen ditu.

0. ALKATETZA ARLOA • Prentsa eta Protokoloa 1. GIZARTE-POLITIKA ARLOA • Gizarte Ongizatea • Nagusiak • 2. JASANGARRITASUN, HIRI-GARAPEN ETA HERRITARREN SEGURTASUN ARLOA • Hirigintza • Etxebizitza • Ingurumena • Obrak eta Zerbitzuak • Mugikortasuna • Udaltzaingoa 3. OGASUN, KONTRATAZIO ETA ONDARE ARLOA • Ogasuna • Kontratazioa • Ondarea 4. GOBERNANTZA PUBLIKO ARLOA • Gardentasuna • Parte-hartzea • Herritarren Arretarako Zerbitzua (HAZ) • Administrazio Elektronikoa • Informatika	5. BERDINTASUN, BIZIKIDETZA ANIZTASUNEAN ETA IMMIGRAZIO ETA KOOPERAZIO ARLOA • Berdintasuna • Aniztasunean Bizikidetza eta Immigrazioa • Kooperazioa 6.- ENPLEGU ETA EKONOMIA-SUSTAPEN ETA MERKATARITZA ARLOA • Enplegu eta Sustapen Ekonomikoa • Merkataritza 7. GIZA-BALIABIDEEN ARLOA • Giza Baliabideak 8. HEZKUNTZA, OSASUN ETA KONTSUMO ARLOA • Hezkuntza • Osasuna • Kontsumoa 9. EUSKARA ETA KULTURA ARLOA • Kultura • Euskara 10. GAZTERIA, JAIK ETA KIROL ARLOA • Gazteria • Jaiak • Kirolak BASAURIKO UDALAREN mendeko organismo autonomoak • UDAL EUSKALTEGIA • KULTUR BASAURI • ETXE MAITIA • BASAURI KIROLAK
---	---

BISIOA

Basauriko Udalaren plan honen helburu nagusiak honako hauek dira: **euskara zehar lerro** izatea hemendik aurrera, erakundearen **zerbitzu-hizkuntza izatea**, eta aurrerapauso sendoak ematea **lan-hizkuntza izan dadin**. Horretarako, 2023an Osoko Bilkurak onartutako *Hizkuntza Ofizialak erabiltzeko Irizpideak* lantzen eta betetze-mailaren jarraipen sistematikoa egiten joango gara. Beraz, hori guztia aurrera eraman dezagun ezinbestekoa izango da **ordezkari politikoen, arduradun teknikoen eta lankideen inplikazioa, adostasuna zein konpromisoa**.

EGOERA ¹

LORPENAK

- ✓ **Euskararen ezagutza areagotu egin da:** gero eta gehiago dira hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileak, baita hori lortzeko langileen eskura dauden tresnak eta baliabideak ere.
- ✓ **Hizkuntza irizpideak onartu genituen 2023ko azaroaren 30ean:** arduradun tekniko eta politikoei eman diegu horren berri, atal bakoitzeko errealitatera egokitu eta, aldiro, horien jarraipena egin ahal izateko.
- ✓ **Harrera linguistikoa egiten diegu langile berriei,** urteetan lortutako gaitasuna gal ez dezaten lanean hasten direnean. Horrela, Udalean sartzen diren langile berriak identifikatuak izaten ditugu: batetik, euren benetako hizkuntza gaitasuna zein den jakiteko; eta bestetik, Euskara Atalak egiten duen lanaren berri emateko: euskararen erabilera planaren, euskaraz lan egiteko baliabideak, itzulpen eta zuzenketa zerbitzua (BIZZ)... Horrez gain, bereizgarriak (herritarrak langile elebidunak zein diren errazago antzeman dezan) eta egun indarrean dauden hizkuntza irizpideen esku-liburua banatzen dizkiegu.
- ✓ **Berariazko prestakuntza:** Trebakuntzaren barruan, ikastaro laburrak eta zehatzagoak eskaintzen hasiak gara: *Itzultzaile Neuronal* (gero eta handiagoa da bere erabilera langileen artean), *Lehen Hitza euskaraz* (aurrez aurreko eta telefono bidezko arreta emateko estrategiak), *Hitz jarria lantzeko ikastaroa* (ordezkari zuzendutakoa...).

HUTSUNEAK

- Euskararen **erabilera oraindik ere lankide bakoitzaren borondatearen menpe dago;** beraz, gaitasuna handiagoa duenak edo etxean hitz egiteko ohitura duenak gehiago erabiltzen du. Aurrerapausoak ematen ari dira, baina ez nahi edo behar den bezain azkar. Langileen gaitasun eta erabileraren arteko desoreka argia da: euskara gutxi erabiltzen da Udalean egun dagoen ezagutza-mailarekin alderatuta.
- **Langile askoren ohiturak aldatzea zaila da.** Batzuek gaitasuna izanda ere, urte askoan eman dute erdaraz lan egiten.

¹ VI. Plangintzaldiaren amaieran egindako ebaluazioan oinarrituta, eta harrezkero antzemandako zenbait gabezia zuzentzeko urratsak


- **Euskaraz ezer gutxi sortzen da.** Udal langileek elebitasuna bermatze aldera, dokumentuak gaztelaniaz sortu eta gero, itzultzaile neuronalaz baliatzen dira edo Euskara Atalera bidaltzen dituzte itzultzeko.
- **Ordezkarari politikari eta ataleko buru batzuek gaztelaniaz egiten dute lan.**
- **Euskararen aldeko jarrera egon arren, ez dago inplikaziorik.** Euskara ez da aintzat hartzen: prozeduretan euskara oraindik ez dago txertatuta, eta erabilera planaren ardurak Euskara Ataleko teknikariona izaten jarraitzen du.
- **Erabilera planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko eredu sistematikoagoa beharrezkoa dugu.**

ERRONKAK

- Euskara Udalaren **kudeaketaren barruan egotea**; benetako zehar-lerroa izatea.
- Erabilera Plana inplementatzeari begira, **Euskara Atalak proposatzen dituen ekintzak aurrera eramateko ordezkari eta ataleko buruen laguntza eta inplikazioa.**
- Euskara ikasteko eta erabiltzeko gero eta trena/ baliabide gehiago badauzkagu ere, **langileen esku (neurri handi batean) dago erabilera bultzatzea.**
- **Ordezkarari politikoei argi izan beharko dute euren inplikazioa ezinbestekoa dela euskararen erabilera areagotzeko.** Euren aldetik eta ataletako buruen aldetik Erabilera Planarekiko atxikimendurik ez dagoen bitartean, nekez lortuko dugu langileak euskaraz aritzea, haiek eredugarri ez badira.
- **Osoko Bilkurak eta Batzordeak arian-arian euskaraz egiten hastea.** Ekitaldi Publikoetan, ordezkari politikariek euskararen erabilera bermatzea.
- **Langileek askotan alferrikakotzat jotzen dute euskaraz lan egitea**, inork ez dielako eskatzen euskaraz lan egiteko ahalegin hori.
- **Langile berriei egiten zaien harrera linguistikoak** jarraipena izatea Giza Baliabideetan eta dagokion ataleko buruaren aldetik.
- **Sentsibilizazio kanpaina erakargarriak eta eraginkorrak egitea**, herritarrak anima daitezen udalarekin euskaraz egitera ahoz zein idatziz. Bestalde, udal langileen artean **jarrera proaktiboa** bultzatzen jarraitzea, herritarrekiko harremanak euskaraz aktibatzeke.

- **Itzulpenaren mendekotasuna arintzea.** Itzulpenak modu arrazionalizatuan erabiltzea. Lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukaten langileak ahalegintzea zabaldu beharreko mezua bi hizkuntzetan sortzen eta ematen.
- **Udalak erosten dituen aplikazioak euskaraz lan egiteko diseinatuta egon daitezela.** Beste edozein hizkuntzatan diseinatutako aplikazioetan euskara galtzaile ateratzen da beti: txantiloiak egokitzeko arazoak, programaren interfazea ezin da itzuli...
- **Administrazioan sartzen ari diren euskal belaunaldi berriak zaindu beharko ditugu.** Langile horiek euren lanpostuetan aritzeko behar duten hizkuntza-gaitasuna badute ere, behin lanean hasita , euskara erabiltzeko aukera gutxi dute, eta, beraz, gaitasun hori galtzeko arriskua dute. Ezin ditugu alferrik galdu bere prestakuntzan urteetan inbertitu ditugun giza baliabideak eta dirua.

Plan estrategikoaren egitura



1.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA DISEINATZEKO ERABILITAKO METODOLOGIA

Euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa diseinatzeko *Basauriko Udalak* erabili du Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak VII. Plangintzaldirako proposatutako **metodologia: KEMEN**.

Metodologia horren bidez, erakunde euskararen kudeaketa eta erabilerari dagozkion **48 adierazle** ebaluatzen dira, horietako **20 kudeaketaren ardatzaren baitan**, eta **gainontzeko 28ak erabileraren ardatzaren baitan** (ikusi 1. eranskina). Horietako **14 adierazlek osatzen dute Adierazleen Aginte Panela** (ikusi 2. eranskina), eta, *Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024ko otsailaren 22ko Dekretuak* zehaztu bezala, adierazle horien inguruko informazioa eman beharko zaio hizkuntza normalizazioan eskumena duen organoari, bertan adierazten den moduan.

1.1 PLAN ESTRATEGIKOA DISEINATZEKO URRATSAK

Basauriko Udalaren sistema egituratua sortu

Hemendik aurrera euskararen normalizazioaren erreferentea izango den **talde eragilea (Euskara Batzordea)**, osatu beharko da **Udalean**.

Osaera: Euskara zinegotzia, idazkari nagusia edo berauk izendatzen duen ordezkaria, arlo guztietako arduradun teknikoak eta euskara teknikaria. Parte hartzaile guztiek euskararekiko konpromisoa bermatu beharko dute, parte-hartze hori guztiz boluntarioa bada ere.

Funtzioak: Udalaren eta udal erakundeen hizkuntza-helburuak zehaztea, helburu horiek lortzera bideratutako estrategia antolatzea; plan estrategiko eta kudeaketa-planak diseinatzea, adostea eta komunikatzea; ekintzen proposamena lantzea, eta horren guztiaren jarraipena egitea.

- **Autodiagnostikoa**

Autodiagnostiko bikoitza egin da Udalaren Plan Estrategikoa osatu ahal izateko: **kuantitatiboa zein kualitatiboa**.

- ❖ **Autodiagnostiko kuantitatiboan KEMEN osatzen duten 48 adierazleak** neurtu dira, eta horretarako datu-iturri bikoitza erabili da: batetik, erakundeko **284 langileri** zuzendu dizkiegun galdetegiak, langile guztien aldetik erantzuna jaso ez badugu ere, eta, bestetik, **erakundeari** zuzendutako galdetegiaren erantzunak
- ❖ **Autodiagnostiko kualitatiboa** burutzeko arlo guztietako arduradun teknikoekin eta sindikatuekin bilerak izan ditugu. Bertan hainbat arloren inguruan hausnarketa egin behar izan dugu: orain arte euskararen erabilera normalizatzeko egindakoa, eta azkenik, indarguneak eta hobetu beharrekoak.

Bi diagnostiko horietako emaitzak kontuan hartuta, lehenengo eta behin erabaki da zein adierazlek osatu behar duten Basauriko Udalaren plan estrategikoa, eta, hori erabakita, VII. PLANGINTZALDIRAKO helburu kuantitatiboak zein kualitatiboak zehaztu dira, **Udalak** datozen bost **urteetarako euskararen normalizazioan duen ikuspegia** lortu ahal izateko.

1.3 PLAN ESTRATEGIKOA OSATUKO DUTEN ADIERAZLEAK.

Basauriko Udalaren euskara normalizatzeko plan estrategikoa 38 adierazlez dago osatuta: batetik, Adierazleen **Aginte Panela** osatzen duten 14 adierazleez, eta, bestetik, aurrekoez gain, *Udalak* ezinbestekotzat hartzen dituen beste 24 adierazlez.

Nahiz eta, esan bezala, 38 adierazlek osatu *Udalaren* plan estrategikoa, VII. Plangintzaldi honetan **lehentasunak** zehaztuko dira eta horien arabera diseinatu eta garatuko dira **urteko kudeaketa planak**. Izan ere, 2024 urtean kudeaketa izango da lehentasuna, eta horri zuzendutako ekintzak garatu eta burutuko dira.

KUDEAKETA ETA ERABILERA MARKOA EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO

1. ardatza. KUDEAKETA

KUDEAKETARAKO ERRONKAK

Orain arte, Basauriko Udalean euskararen erabileraren kudeaketa ez da modu sistematizatuan eta jarraituan egin. Hizkuntza politika kudeaketa orokorrean integratuko badugu, urrats sendoak ematen hasi beharko dugu. Horrela baino ez dugu lortuko euskara benetako zehar-lerroa izatea. Izan ere, **orain arteko ibilbideak ez du bermatu euskara ez zerbitzu-hizkuntza, ez lan-hizkuntza gisa.**

Hori dela eta, kudeaketarako **erronka nagusiak** honako hauek dira:

- Langileekin eta arduradunekin elkarlanean, udalaren **euskararen erabilera plana adostu eta onartzea.**
- Udalak 2023ko azaroaren 30ean onartutako **hizkuntza-irizpideak ondo komunikatzea, modu sistematikoan lantzea, eta horiek betetze-mailaren jarraipena egitea.**
- Arlo edo atal bakoitzak irizpide horiek bere modura egokitzea, eta **malgutasun horretatik abiatuta, arlo eta zerbitzu bakoitzaren hutsuneak, lehentasunak eta helburuak zein diren zehaztea.**
- **Ordezkariek zein langileak motibatzea,** planaren helburuen parte sentiarazteko.
- Politiko zein langileen **parte hartzea sustatzea** eta udal arlo bakoitzak **planarekiko ardurak hartzea.**

Hori hobetzeko, kudeaketako arlo gehien-gehienetan hobetu beharra dagoela, bereziki, lehen esan bezala, sistematizazioaren aldetik. Ildo horretatik, honako **helburu nagusiak** planteatzen dira: **EUSKARA BATZORDEA ETA JARRAIPEN SISTEMATIKOA**

- **Egitura egokia antolatzea:** udalaren kudeaketa orokorrean txertatua eta erabakitzeko ahalmena duena, zeharkakoa, arlo desberdinetako politikoz eta teknika-iz osatua, operatiboa izango dena.
- **Jarraipen sistematikoa egitea:** Kudeaketa-planaren gauzatzearen eta irizpideen betetzearen jarraipen sistematikoa egitea, horretarako finkatutako prozedura eta maiztasunarekin.

1.0.1 arloa. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Udalak daukan kudeaketa-sistemari buruzko arloa da. Plan estrategikoa, kudeaketa planak eta hizkuntza-irizpideak hartzen dira kontuan, baita kudeaketa hori egiteko organoak ere.

1.0.1.1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.	
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
	0	75

EGOERA

Udalak plan estrategikoa eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu behar du. Orain arte, Euskara Atalaren ardura izan da plana diseinatzea, inplementatzea eta jarraipena egitea. Planean jasotako eginkizunak ere Euskara Atalak gidatzen eta bideratzen ditu.

Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideen dokumentua onartu eta lantzen hasiak gara arloz arlo, horrek aukera emango digu plana egoki diseinatzeko eta aginte-panel egoki bat sortzeko.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Egitura egokia antolatzea.** Udalaren kudeaketa orokorrean txertatua eta erabakitzeko ahalmena duena, zeharkakoa, arlo desberdinetako politikoz eta teknika-iz osatua eta operatiboa izango dena.
- **Erabilera plana** egitea eta ondo komunikatzea.
- Euskara **zeharlerroa** izatea Udalaren ohiko jardueran.
- **Arduradun politiko eta teknikoek laguntza eta inplikazioa,** Euskara Atalak plana inplementatze aldera proposatzen dituen ekintzak gauzatzeko.

1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
	25	75

EGOERA

Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideen dokumentua 2023ko azaroaren 30ean onartu zuen Osoko Bilkurak. Dokumentu horren berri eman zaie arduradun politiko eta tekniko guztiei izandako bileretan eta horretarako berriaz antolatutako formakuntza saioetan.

Arlo eta atal bakoitzaren ardura da hizkuntza irizpide horiek betetzen direla bermatzea eta betetze-mailaren jarraipena egitea. Horrek aukera emango digu arloka kudeaketa-plan egokiak diseinatzeko.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Plan estrategikoaren, kudeaketa planen eta hizkuntza irizpideen eraginkortasuna uneoro ebaluatzea, behar besteko egokitzapenak egin ahal izateko.
- Kudeaketa planak diseinatzea arloka.
- Kudeaketa-planen gauzatzearen eta irizpideen betetzearen jarraipen sistematikoa egitea, horretarako finkatutako prozedura eta maiztasunarekin.
- Jarraipenerako adierazle-panel egokia sortzea, bertan honako hauek jasotzeko: helburuak zehazki definituak, lehentasunak, datuak biltzeko modua, arduradunak, maiztasuna, epeak...
- Zeharkako gaien (*Berdintasuna, Prebentzioa, Ingurumena, Euskara, Aniztasuna*) kudeaketa bateratua bideratzeko antolaketa-modua aztertzea, efikaziaren mesedetan, eta jasagarria izango den antolaketa lortzeko. Gaur egun, hori egiten ari gara *Lan-arriskuen Prebentzio Zerbitzuarekin* elkarlanean, langile berriei harrera linguistikoa emateko.

1.0.2 arloa. LIDERGOA

Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzea eta ardura baloratzen da; plan estrategikoan eta kudeaketa planetan duten inplikazioa neurtzen da.

1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa –planetan finkatutako helburuak bete daitezten.					
<table><tr><th>Hasierako egoera (%)</th><th>Aurreikuspena (%)</th></tr><tr><td>33</td><td>60</td></tr></table>			Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	33	60
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)					
33	60					

EGOERA

Politikarien eta langileen aldetik konpromisoa lortu behar dugu lehen hitza euskaraz izan dadin.

Era berean, arduradun politiko eta teknikoek aldetik hizkuntz jokabide eredugarriak lortzeko beharra dugu. Administrazioak egitura hierarkikoa daukan heinean, hizkuntza boterea hierarkia horrekin lerrotatuta ere badoa. Alde horretatik, bai arduradun politiken eta bai arduradun teknikoek hizkuntza aldetik duten ardura hori egunerokotasunera eramatea da erronka nagusienetako bat.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Motibazioa sustatzea** eta ordezkari teknikoak zein politikoak planaren helburuen parte sentitzeko.
- **Liderrek normalizazio planean dituzten funtzio eta egitekoak zehaztu eta komunikatzea**, arduradun politikoengandik hasi eta atalkako arduradunengana, argi izan dezaten zer egin behar duten ,beren egunerokoan euskararen erabilerari dagokionez, zerbitzu guztiak kontuan harturik.

1.0.2.5	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.					
	<table><tr><th>Hasierako egoera (%)</th><th>Aurreikuspena (%)</th></tr><tr><td>25</td><td>50</td></tr></table>	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	25	50	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)					
25	50					

EGOERA

Egun, talde eragilea sorturik ez dagoenez, arduradun politiko eta teknikoek ez dute parte hartzen plan estrategiko eta kudeaketa planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Talde eragilea sortzea eta iraunkortzea, eta kideek modu jarraikor batean parte hartzea.
- Aurreko adierazlean(1.0.2.4) ezarritako neurri berberak.

Planaren helburuak, kudeaketako planen ekintzak eta Udalaren hizkuntza irizpideak ezagutzen dituzten neurtzen da. Baita euren inplikazioa eta parte-hartzea ere.

1.0.3.7	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.				
	<table border="1"> <tr> <th>Hasierako egoera (%)</th> <th>Aurreikuspena (%)</th> </tr> <tr> <td>86,49</td> <td>96</td> </tr> </table>	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	86,49	96
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)				
86,49	96				

EGOERA

Komunikazioari dagokionez, hainbat bide erabili ohi dira **erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen berri emateko**: Joseba Lozanok VII. Plangintzaldiari buruzko aurkezpena egin zien arduradun tekniko eta politikoei 2022an; trebakuntza-saio informatiboak ere jaso zituzten 2024aren hasieran, langile berriei harrera-linguistikoa egiten zaie...

Eta, horretaz aparte, eguneroko jardunean sortzen diren une garrantzitsuak gairen bati buruzko irizpidea zehaztean, testuak berrikustean, testuak itzultzerantz bidaltzen direnean...

Euskara Atalera datozen langileen eskaerak, zalantzak, galderak...

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Komunikazio-sarea eraginkorra sortzea** ordezkarien eta langileen artean, bi norabideko komunikazio sistema, alegia.
- **Langileei erabilera plana komunikatzea**, eta **hizkuntza-irizpideak modu sistematikoan lantzen jarraitzea**. Horretarako , bakoitzaren egitekoak azalduko zaizkie.
- Era berean, **planean aktibo izatera animatzea** eta laguntzea, euren ekarpenak eskatzea, baita lorpenen berri ematea ere
- **Arlokako bilerak egiten jarraitzea**, helburuak finkatzeko eta, hala badagokio, egokitzeke.
- **Harrera linguistikoa egiten jarraitzea**, politiko zein langile berriei; eta harrera horrek dagokion atalean jarraipena duela bermatzea.

1.0.3.8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.					
	<table><tr><th>Hasierako egoera (%)</th><th>Aurreikuspena (%)</th></tr><tr><td>73,05</td><td>85</td></tr></table>	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	73,05	85	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)					
73,05	85					

EGOERA

Gaur egun, Osoko Bilkurak 2022ko azaroaren 23an onartutako hizkuntza-irizpideak langile guztien eskura daude, bai intraneten, bai haientzat berariaz sortutako liburuxkan. Liburuxka horrek oso modu erraz eta argian jasotzen ditu irizpideak, eta langile guztiei helarazi diegu, euren eguneroko jardueran gida gisa erabil dezaten.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Langileek euren eginbeharren garbi izan ditzaten **bermatzea**.
- **Hizkuntza irizpideak betetzea**, eta betetze mailaren **jarraipena** egitea.
- Jarraipen hori **sistematizatzea**.

1.0.4 arloa HIZKUNTZA GAITASUNA

Langileek eta arduradun politikoek euren lanpostuetan euskaraz betetzeko duten gaitasuna neurtzen da arlo honetan.

Lanpostu bati dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen denean, langile horri aitortzen zaio lanpostu horri dagozkion eginkizunak euskaraz betetzeko behar duen gaitasuna. Era berean, udal edo udal erakundeen lanpostu-zerrendan derrigortasun-data beteta badago, nahitaezkoa izango da hizkuntza-eskakizuna betetzea dena delako lanpostua eskuratzeko eta bertan jarduteko.

Era berean, gure hizkuntza irizpideetan ezarrita dago, 3. edo 4. hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-data igarota duen lanpostu bat betetzen duten beren zerbitzuko langileek euskara zerbitzu-hizkuntza gisa berrmatzeaz gain, lan-hizkuntza gisa ere hasi beharko dutela erabiltzen, baldin eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatu badute.

UDALEKO LANGILEEN HIZKUNTZA GAITASUNA

	DD	1H E	2H E	3H E	4HE	HE EGIAZTAT U BARIK	SALBUETSITS A	HUTSI K
BASAURIKO UDALA Lanpostuak:274 Hutsik:113	151*	20	65	68	3+2T G	55	0	26
ETXE MAITIA Lanpostuak:35 Hutsik: 0	13	3	7	5	-	22	-	
KULTUR BASAURI Lanpostuak :39 Hutsik:3	32	0	9	19	-	-	-	
BASAURI KIROLAK Lanpostuak:28 Hutsik:1	17	6	9	2	-	10	-	1
UDAL EUSKALTEGIA Lanpostuak: 25 Hutsik: 0	25		-	3	22 TG	-	-	

- Giza Baliabideek eta erakunde autonomoek bidalitako datuetan oinarrituta

1.0.4.12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.	
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
	60,27	80

EGOERA

- 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langile batzuek oraindik ez dira gai lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko , derrigortasun data iraungita egonda ere.
- Zenbait zailtasun izaten dira lanpostu batzuk euskaldunekin betetzeko.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Langileak euskara maila hobetzera animatzea**, bereziki, lanpostuaren hizkuntza eskakizuna adinako euskara maila ez dutenak edo, hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izan arren, eginkizunak euskaraz egoki betetzeko zailtasunak dituztenak, eta horretarako baliabideak eskaini.(IVAPEko euskara ikastaroak, trebakuntza...)
- **Urrats sendoak ematea** 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta eta derrigortasun-dataigarota dutenek lanpostuaren eginkizunak euskaraz ahoz egin ahal izan ditzaten.
- Hala badagokio, **derrigortasun-data berriak ezartzea Plangintzaldiaren hasieran**,² udalaren plan estrategikoa onartzearekin batera. Salbuespen gisa, derrigortasun-datak ere ezarriko dira, baldin eta lanpostuen dotazioak gehitu edo gutxitzen badira eta, horren ondorioz, dauden derrigortasun-datak nahitaez bete beharreko indizeari egokitu behar bazaizkio.
- **Hizkuntza eskakizunak esleitzen jarraitzea**: lanpostu bakoitzak dituen komunikazio-ezaugarrien eta -beharren arabera, eta lanpostuaren eginkizunak eta zereginak betetzeko eskatzen diren hizkuntza-trebetasunen arabera esleituko dira hizkuntza-eskakizunak. Horretarako, beharrezko komunikazio- eta funtzio-analisia egingo dugu, ahozko zein idatzizko komunikazioak, lanak eta harremanak kontuan hartuta
- **Hautaketa-probetan**, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan, proba bat gutxienez euskaraz egitea.³

² Otsailaren 22ko Euskal Sektore Publikoen euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuaren lehenengo atalaren 22. 3 eta 24. 4 artikuluek zehazten dutenari jarraiki

³ Otsailaren 22ko Euskal Sektore Publikoen euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuaren bigarren atalaren 26-30 artikuluek zehazten dutenari jarraiki.

1.0.4.13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.	
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
	56,85	70

EGOERA

- 3. HE edo 4. HE egiaztatuta duten askok gaitasun erlatibo hobea dute gaztelaniazko gai teknikoetarako. Bestalde, gure herrialdeko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, gaztelania da kanpoko eskaeran nagusi den hizkuntza, eta horrek gaztelaniaren gaitasun hori gehiago indartzen laguntzen du .
- Zenbait zailtasun izaten dira lanpostu batzuk euskaldunekin betetzeko.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Aurreko adierazleko(1.0.4.12) neurri berak, idatzizko gaitasunari begira.
- Hizkuntza Irizpideetan sortze- hizkuntzaren inguruan jasotakoak betearaztea eta betetze-mailaren jarraipena sistematikoa egitea

1.0.4.14	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.					
	<table><tr><th>Hasierako egoera (%)</th><th>Aurreikuspena (%)</th></tr><tr><td>75</td><td>85</td></tr></table>	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	75	85	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)					
75	85					

EGOERA

Arduradun politiko batzuk euskaldunak dira. Hala ere, kasu batzuetan behar besteko gaitasuna badute ere, ez du isla eguneroko jardueran.

Bestalde, euskara ikasi nahi dutenek edo gaitasuna hobetu nahi dutenek trebakuntza saioetan hartzen dute parte.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Ordezkarri politikoak euskaldunak izatea bultzatzen jarraitzea, udalaren euskarazko funtzionamendua bermatzeko.

- Udalkide berrien hizkuntza ezaugarrien eta beharren informazioa jaso, eta euskaraz funtzionatzeko laguntza-bideak ematea, adibidez: trebakuntza-saio berezituak eta euren beharrei egokituta.
- Unean uneko beharrei erantzutea, eginkizunak euskaraz bete ditzaten bermatzeko. Horretarako, ikastaro labur eta espezifiko batzuk ditugu aurreikusita. (*Jendaurrean hitz egiteko ikastaroa , Bilerak nola egin...*).

1.0.5 arloa. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

Arlo honetan aztertzen da ea Udalak herritarrei eta langileei jakinarazten dien euskararen erabilera sustatzeko estrategia, eta berariazko ekimenetan parte hartzen duen beste esperientzia batzuk ezagutzeko.

1.0.5.15	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldeei.	
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
	25	50

EGOERA

Euskara erabiltzeko kontzientziazioa kanpaina antolatu eta abian jarri dugu. Helburu nagusia hau da: herritarrak animatzea udal administrazioarekin euskaraz hitz egitera; eta, aldi berean, udal langileek euskara erabiltzea zerbitzu hizkuntza gisa, eta ahal den neurrian, lan hizkuntza gisa.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen **estrategia aktiboki komunikatzea**.
- **Planaren komunikazio orokorra, herritarrei zein entitateei**. Adibidez, harremana dugun enpresei edo elkarreei zuzenean adieraztea eurekiko harremana euskaraz izatea nahi dugula eta eurak ere guregana euskaraz zuzen daitezela.
- **Euskaraz egiten dutenean zoriontzia, eta hala jarraitzea animatzea ere**.
- **Udal instalazioetan Udalak euskara sustatzen duela adierazten duten elementuak jarri**, lehendik ez badaude edota daudenak beritu.

1.o.6 arloa. HIZKUNTZA-KLAUSULAK

Kontratuetan, dirulaguntzetan zein hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzeari eta jarraipena egiteari buruzko diagnosia egiten da arlo honetan.

1.o.6.17	Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
	50	70

EGOERA

Zenbait kontratutan eta dirulaguntzetan txertatzen dira hizkuntza-klausulak, baina ez modu sistematikoan. Hizkuntza-klausulak txertatzeko derrigortasuna gure hizkuntza irizpideetan dago jasota.

Gainera, klausulak txertatuta ere, horien jarraipena ez da modu sistematikoan egiten.

Idazkariari eta Aholkularitza Juridikoari proposamena egin diegu kontratueterako klausulen bilduma osatzeko, kontratuen xedea aintzat hartuta.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Kontratu gehienetan, klausula estandarrak sartu beharrean, **kontratu- xedeari hobeto egokitutako klausulak izatea.**
- Klausula horiek **langile guztien eskura egotea.**
- Jendaurrean jarri beharreko azterlanak, txostenak, proiektuak edo antzeko lanak egiteko kontratuen kasuan, azterlan, txosten edo lan horiek **bi hizkuntzetan idazteko kontratazio-prozedura ezarriko du kontratazio-organoak.**

1.0.6.18	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.					
<table><tr><td>Hasierako egoera (%)</td><td>Aurreikuspena (%)</td></tr><tr><td>100</td><td>100</td></tr></table>			Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	100	100
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)					
100	100					

EGOERA

Balorazio-irizpideak jartzen dira kasu gehienetan. Hasierako onespena duen dirulaguntzen araudi berrian jasotzen dira hizkuntza irizpideak, baita deialdiko oinarri orokorretan ere. Horretaz aparte, oinarri espezifiko batzuetan ere txertatzen dira.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

Xedean hizkuntza-erabilera eta sustapena duten dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen direla bermatzea.

1.0.6.19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.					
	<table><tr><th>Hasierako egoera (%)</th><th>Aurreikuspena (%)</th></tr><tr><td>25</td><td>50</td></tr></table>	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	25	50	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)					
25	50					

EGOERA

Hizkuntza klausulen betetze mailaren jarraipena egitea kontratua egin duen atalaren ardura da. Hala ere, lan-kargagatik, jarraipen hori ez da modu sistematikoan egiten. Bestalde, betetze-mailaren jarraipenerako prozedura finkatu barik dago kasu gehienetan.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Hizkuntza-klausulen betetze-mailari jarraipena egitea zaila bada ere, horretan ere jauzi handi bat egin behar dugu.
- Prozedura erraz eta eraginkorra diseinatzea eta inplementatzea, Kontratuetako hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egiteko

2. ardatza. ERABILERA

Plan honek udaleko eta udal erakundeetako langile guztiek eragingo die, herritarrei euskarazko zerbitzua bermatze aldera. Era berean, euskaraz lan egitea sustatuko du.

Helburu horiek betetzeko, Udalak beharrezkoak diren protokoloak eta jarraibideak landuko ditu.

Planaren eragina lanpostu bakoitzaren harreman-sarearen eta eginkizunen arabera izango da, betiere zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza ardatzat hartuta.

ERABILERARAKO ERRONKAK

Euskararen erabileraren maila baxua da, oro har, Basauriko Udalean. Zerbitzu-hizkuntza gisa batzuetan ez dago bermaturik; eta laneko hizkuntzari dagokionez, gaztelania ere bada udaleko ohiko hizkuntza.

Beraz, erronka nagusia Udalaren barne-funtzionamenduari dagokio. Batetik, bai ahoz bai idatziz euskara zerbitzu-hizkuntza izatea; bestetik, urrats sendoak ematen hastea, euskaraz lan-hizkuntza izan dadin, betiere Basauriko egoera soziolinguistikoa kontuan izanik. Hori guztia aurrera eramateko dauden **gabeziak bete beharko ditugu**: *ahozko erabileran daudenak, sortze-hizkuntzan daudenak, prestakuntzari dagozkionak, baliabide informatikoekin lotutakoak...*

Era berean, komeni da **langileen arteko ahozko eta idatzizko harremanetan arreta jartzea**, hizkuntza ohiturak aldatu nahi baditugu.

Bestalde, komeni da datozen urteetan **kulturan, aisialdian eta kirolean** jomuga jartzea.

Kanpo harremanei dagokienez, berriz, Udalak lau urte hauetarako dituen **erronka nagusiak** hauek dira:

- Udalak enpresei, herritarrei, erakundeei gaztelaniaz oraindik bideratzen dizkien komunikazioak ahal den neurrian ele bietan bideratzea, eta euskaraz, hala eskatu dutenei.
- Udalak beste erakunde batzuetatik, enpresetatik, herritarretatik jasotzen dituen idatzietan ere **euskarazko harremana bultzatzea**.

2.1. eremua. ZERBITZU-HIZKUNTZA

2.1.1. arloa. IRUDIA

2.1.1.21	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.				
		Hasierako egoera %....		Aurreikuspena %....	
		Euskara	Ele bietan	Euskara	Ele bietan
		0	88		100

EGOERA

Basauriko Udalak bere irudi korporatiboarekin zerikusia duten elementuak zaintzen ditu, gure hizkuntza irizpideetan ezarritakoaren arabera.

Errotulazio nagusia, oro har, ele bietan dago.

Iragarki-oholak: ele bietan, eta arlo batzuetan gaztelaniaz baino ez.

Informazioa emateko eta izapide automatizatuak egiteko makinetan, pantailak ez daude ele bietan kasu guztietan.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Arlo honi dagozkion **irizpideen betetze-mailaren jarraipen sistematikoa** egitea.
- Kartelak, biniloak... zabaldu aurretik, Euskara Atalera jotzea **akats puntualak saihesteko**.
- **Behin-behineko errotulazioan arreta berezia ipintzea**, gaztelania hutsezko errotulurik jar ez dadin.

2.1.1.22	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.				
		Hasierako egoera % ...		Aurreikuspena % ...	
		Euskara	Ele bietan	Euskara	Ele bietan
		0	90	10	100

EGOERA

- Argitalpenetan (egitarauak, agenda, egutegia, katalogoetan...) lehenesten da euskararen presentzia: testuak ele bietan daude.
- Esku-orrietan ere antzeko irizpidea erabiltzen da: ele bietan edo hizkuntza gehiagotan.
- Merchandisingerako elementuak (poltsak, euritakoak, txapak, kamisetak) ele bietan, gehienak.
- Prentsa-oharrak, ele bietan.
- Udalak hedabideetan zabaltzen dituen berriak, gaztelania hutsean (% 80); eta ele bietan (%20) argitaratzen dira.
- Udalak hedabideen bitartez zabaldutako iragarki eta publizitatea, ele bietan.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

Gure hizkuntza irizpideei jarraituz, **ele bietan egongo dira eta euskarak⁴ lehentasunezko tokia izango du**, bai euskarri fisikoan bai digitalean honako hauek:

- Argitalpen, iragarki eta publizitatea.
- Udal araudia.
- Udalaren eta udal erakundearen iragarpen ofizialak eta gainerako publizitate-ekintzak.

Kanpainetako edukiak eta esloganak bi hizkuntza ofizialetan sortuko dira, ez dira hizkuntza batean sorturikoaren itzulpen soilak izango (*kontrataziorako baldintza pleguetan berariaz jasoko da hori guztia*).

⁴ Ik.: Basauriko Udalean Hizkuntza Ofizialak erabiltzeko Irizpideak

2.1.1.23	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.							
	<table><tr><th>Hasierako egoera (%)</th><th>Aurreikuspena (%)</th></tr><tr><td>Euskara</td><td>Euskara</td></tr><tr><td>25</td><td>50</td></tr></table>	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Euskara	Euskara	25	50	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)							
Euskara	Euskara							
25	50							

EGOERA

Agerraldi instituzionaletan euskara eta gaztelaniaren erabilera orekatua ez dago beti bermatuta.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

Euskararen erabilera orekatua bermatuko da **ekitaldi publiko guztietan** (aurkezpenak, prentsaurrekoak, ekitaldi instituzionalak, sari-banaketak, hitzaldiak, mahai-inguruak, jardunaldi teknikoak, ikastaroak, erakusketak eta antzekoak) eta **ekintza publikoetan** (jaialdiak, kirol-jarduerak, kontzertuak, kongresuak).

Gure hizkuntza **irizpideetan jasotakoa bete beharko** da.

Era berean, ekitaldi horiek **kanpoko enpresa batek** antolatu behar dituztenean, kontrataziorako baldintza-pleguetan arestian aipatutako irizpideak jasoko dira.

2.1.1.24	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak.			
	Hasierako egoera % ...		Aurreikuspena % ...	
	Euskara	Ele bietan	Euskara	Ele bietan
	10	80	20	100

EGOERA

Udalak eta udal erakunde autonomoek duten webguneetan eus. domeinua erabiltzen da:

www.basauri.eus/eu, www.basaurikirolak.eus, www.kultur.basauri.eus, www.socialantzokia.eus/eu/

Eduki finkoak ele bietan daude nagusiki eta euskara lehenetsita dago.

Sare sozialei dagokienez, ele bietan elikatzen dira nagusiki.”Basauritarrak” izan ezik, euskara hutsez eginda dagoena.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Edukiak bi hizkuntzetan argitaratuko dira aldi berean.
- Argitaratzen duen atalaren ardura izango da edukiak bi hizkuntza ofizialetan egotea, baita horien zuzentasuna eta egokitasuna zaintzea ere.
- Izapideak Internet edo Intraneten bidez egin ahal badira, izapide horiek euskaraz edo gaztelaniaz egiteko aukera bermatuko da.
- Euskarazko orrietan txertatzen diren estekek euskarazko edukietara bideratzen dutela bermatuko da.
- Gure webgunean euskaraz nabigatzen duten herritarren datu estatistikoak biltzen saiatuko gara

2.1.2 arloa. HERRITARREKIKO HARREMANAK

Arlo honetan aztertu da ea herritarrei bermatzen zaien Udalarekin euskaraz komunikatzeko eskubidea, bai eta herritarrei euskaraz komunikatzeko gonbitea egiteko langileen eskaintza aktiboa ere. Herritarrentzako zerbitzuetan euskarazko eskaintza ere neurtu da.

2.1.2.25*	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.	
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
	Euskara	Euskara
	48,05	100

EGOERA

Gure hizkuntza irizpideetan jasota dago Basauriko Udal langileok lehen hitza euskaraz eman behar dugula, eta, horrez gain, lanpostu gehienetan badaude horretarako gonbita egiten duten euskarriak. Oraindik ez dugu lortu eskaintza aktibo hori bermatzea.

Herritarrei arreta emateko protokoloa jasota dago langileen artean zabaldutako hizkuntza irizpideetan .

Euskara zerbitzu-hizkuntza izan dadin, herritarren eskubideak %100ean bermatu behar ditugu. Oraindik ere, ahozkoan, badira herritarrei hizkuntza aldatzeko eskatzen jarraitzen duten langileak.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Eskaintza aktiboa sustatzea**, lehen hitza eta lehen esaldia euskaraz izateko.
- **Herritarrekin ahozko harreman handiena duten langileen kasuan** (udaltzainak, HAZ, atezainak...), euskararen erabilerari buruzko azterketa bat egitea, eta TREBAKUNTZAren bidez egoera hobetzeko baliabideak eskaintzea.
- Hizkuntza irizpideen **betetze-mailaren jarraipen sistematikoa** egitea.

2.1.2.26*	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.	

EGOERA

Udalak eta udal erakundeek udal langileen bidez herritarrei ahozko arreta ematen dien zerbitzu gehienetan euskarazko eskaintza bermatuta dago.

Bestalde, azpikontrataturako zerbitzu eta enplegu planen bidez ere herritarrei zerbitzua eskaintzen dieten langileak batzuetan ez dira euskaldunak; beraz, kasu horietan ezin da zerbitzua euskaraz bermatu.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea** eta hizkuntzen erabilera orekatua lortzea, herritar horiek gurekin harremanetan jartzen direnean.
- **Herritarrekin ohiko harremana duten lanpostuetako langileek** % 100ean artatzea herritarrek euskaraz.

2.1.2.27*	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.				
		Hasierako egoera % ...		Aurreikuspena % ...	
		Euskara	Ele bietan	Euskara	Ele bietan
			10		40

EGOERA

- Euskaraz eskaintzen diren ikastaroak Kulturari eta aisialdiri lotutakoak dira.
- Kirol-ikastaro guztietan irakaslea euskalduna izatea ez dago bermatuta.
- Kultura- eta gizarte-izaerako jardueretan badago euskarazko eskaintza (antzerki, bakarriketa, pailazo-ikuskizunetan, ipuin-kontaketak, hitzaldiak, ikastaro eta tailerrak).

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Kultura- eta gizarte-izaerako jardueretan euskarazko eskaintza handitzea**, batez ere, gazteei eta umeei zuzendutako ikastaroetan.
- **Kirol ikastaroetan** euskararen erabilera bermatzea
- Ekitaldien, jardueren eta ikastaroen **hizkuntza-informazioa jasotzea erraztea**.

•

2.1.2.28*	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen eta eskuratzen zaizkie dokumentuak.				
		Hasierako egoera %		Aurreikuspena %	
		Euskara	Ele bietan	Euskara	Ele bietan
		5	85	15	100

EGOERA

Herritarrei eskuratzen zaizkien dokumentuak gaztelaniaz edo ele bietan izaten dira.

Gure hizkuntza-irizpideek jasotzen dute nola jokatu behar dugun, udalak herritarrekiko harremanak hasten dituenen, eta baita nola jokatu erantzuteko orduan.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Hizkuntza-irizpideetan jasotakoa betetzea**, eta horien betetze-mailaren jarraipena egitea, herritarren eskubideak bermaturik egon daitezen.
- **Idatzien sarrera- irteera-erregistroko hizkuntza datuak egoki jasotzeko bidea lantzea**, benetako laginak izan ditzagun.

2.1.2.29*	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.		
Hasierako egoera %		Aurreikuspena %	
Euskara	Ele bietan	Euskara	Ele bietan
0	100		100

EGOERA

Gure hizkuntza- irizpideetan jasota dago harremanak euskaraz izan nahi dituenari edota dokumentuak euskaraz bidali nahi dituenari euskaraz erantzun behar zaiola.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Hizkuntza-irizpideetan jasotakoa betetzea**, eta horien betetze-mailaren jarraipena egitea, herritarren eskubideak bermaturik egon daitezen.

2.1.2.30	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz.							
	<table><tr><th>Hasierako egoera (%)</th><th>Aurreikuspena (%)</th></tr><tr><td>Euskara</td><td>Euskara</td></tr><tr><td>24,14</td><td>35</td></tr></table>	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Euskara	Euskara	24,14	35	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)							
Euskara	Euskara							
24,14	35							

EGOERA

Herritar gutxi jotzen du udalera euskaraz hitz egiten. Hori dela eta, sentsibilizazio-kanpaina bat jarri dugu abian, helburu nagusi honekin: herritarrak udal-administrazioarekin euskaraz hitz egitera animatzea, eta udal-langileek euskara gero eta gehiago erabil dezaten bultzatzea, horretarako jarrera proaktiboa erakutsiz.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Ekainean abian jarritako kanpaina irailetik aurrera indartzea**, eta izan duen inpaktua baloratzea, beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko.
- **Herritarrei ematen zaien arreta hobetu nahian, ohiturak aldatzea**: eskaintza aktiboa sustatzea lehen hitza eta lehen esaldia euskaraz esanez, edo euskararen euskarriak erabilita.
- **Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta hizkuntza erabilera orekatua lortzea**, herritar horiek Udalarekin eta udal erakundeekin harremanetan jartzen direnean.
- Herritarrekin ohiko harremana duten lanpostuetako langileek **zerbitzua euskaraz bermatzea**.

2.1.2.31	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz.			
Hasierako egoera %		Aurreikuspena %		
Euskara	Ele bietan	Euskara	Ele bietan	
10		25		

EGOERA

Aurreko adierazlean (2.1.2.30) jasotako berbera.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Ekainean abian jarritako kanpaina irailetik aurrera indartzea**, eta izan duen inpaktua baloratzea, beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko.
- **Hizkera administratibo argiaren aldeko apustua egitea**, gure idazkiak ulergarriak izan daitezen.

2.2. eremua. LAN-HIZKUNTZA

2.2.1 arloa. BARNE-HARREMANAK

Lan-bileretan, elkarriketa formaletan zein informaletan eta idatzizko komunikazioetan euskararen erabilera nolakoa den aztertu da arlo honetan.

2.2.1.32*	Lan-bilerak euskaraz egiten dira.	
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
	Euskara	Euskara
	13,02	25

EGOERA

Ahulguneetako bat da: plenoa gaztelaniaz izaten da, gai-ordena eta aktaren laburpena baino ez dira ele bietan egiten, eta gutxi dira euskaraz egiten diren esku-hartzeak.

Informazio Batzordeak ere ez dira euskaraz izaten, arduradun tekniko eta politiko guztiek ez baitute euskara gaitasun nahikorik horretarako.

Gehienetan, ataleko bilerak gaztelaniaz egiten dira.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Euskararen erabilera areagotu behar dugu bileretan
- 3. HE (C1) edo 4. HE (C2) egiaztatuta duten langileek beste partaideekin adostuko dute euskara nola erabili.
- Bilera zein hizkuntzatan egingo den zehaztu ostean, erabakiko da bilerako euskarriak eta dokumentazioa zein hizkuntzatan eman.
- Bileraren deialdia, euskaraz edo ele bietan.
- Bilera egindako hizkuntzan edo hizkuntzetan jasoko da bilera-akta. Hala ere, laburpena jendaurrean jarriko bada, laburpen hori hizkuntza ofizial bietan egongo da.
- Hizkuntza-irizpideetan jasotakoa betetzea, eta horien betetze-mailaren jarraipena egitea, herritarren eskubideak bermaturik egon daitezen.

2.2.1.33*	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.							
	<table><tr><th>Hasierako egoera (%)</th><th>Aurreikuspena (%)</th></tr><tr><td>Euskara</td><td>Euskara</td></tr><tr><td>32,34</td><td>45</td></tr></table>		Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Euskara	Euskara	32,34	45
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)							
Euskara	Euskara							
32,34	45							

EGOERA

Ahulguneetako bat da. Langileen arteko ahozko lan-harremana kasu batzuetan izan ezik, gaztelaniaz da.

Euskara eta Kultura ataletan bakarrik dago bermatuta euskarazko lan-harremana, nahiz eta atal gehienetako langileek hizkuntza-gaitasun nahikoa izan horretarako.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Lankideen arteko ahozko harremanetan **euskararen erabilera bultzatzeko ekimen berriak bideratzea**
- **Gure hizkuntza irizpideetan jasotakoa betetzea:**
 - Aurrez aurreko eta telefono bidezko ahozko lan-harremanetan euskararen erabiltzeko konpromisoa hartzea, baldin eta gure lankidea euskalduna bada.
 - Elkarrizketa asimetrikoen alde egitea: euskaraz dakigunok euskaraz egiten dugu euskaraz ulertzen duenarekin (**Ulerrizketa** metodologia⁵), besteak gaztelaniaz erantzuten badigu ere. Horretarako trebakuntza-saioak ere bideratzen saiatuko gara.
- Hizkuntza irizpide horien betetze-mailaren jarraipena egitea.

2.2.1.34	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.							
	<table><tr><th>Hasierako egoera (%)</th><th>Aurreikuspena (%)</th></tr><tr><td>Euskara</td><td>Euskara</td></tr><tr><td>29,52</td><td>35</td></tr></table>	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Euskara	Euskara	29,52	35	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)							
Euskara	Euskara							
29,52	35							

EGOERA ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

2.2.1.33 adierazlean jasotakoak

⁵ Ulerrizketa metodologiak aukera zabaltzen du lantokian euskaraz ulermen maila mugatua duten lankideen ("ulertzaileak") eta euskaraz ongi egiten dutenen artean ("mintzatzaileak") hizkuntza ohitura aldatu eta euskara erabiltzen hasteko

2.2.1.35*	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.	
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
	Euskara	Euskara
	65,29	70

EGOERA

Udal barruko harreman idatzia gaztelaniaz edo ele bietan izaten da: e-posta mezuak, barneko jakinarazpenak... gaztelaniaz edo ele bietan dira nagusiki.

Udal barrurako dokumentu luzeak ere gaztelaniaz edo kasu gutxi batzuetan ele bietan izaten dira, adibidez: txosten teknikoak

Bileretako gai-zerrendak eta aktak gaztelaniaz izaten dira nagusiki eta bakar batzuk ele bietan, baita bertan aurkezten diren txostenak ere. Horrek era guztietako bilerak barne hartzen ditu: Udalbatza, Informazio Batzordeak zein ataletako bilerak.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Intraneteko abisuak, zerrenda orokorrerako mezuak** (*posta elektroniko bidez bidalitako mezuak, jakinarazpenak, gutunak...*), ele bietan egotea bermatzea.
- **Edukia mezu bakarrean jasotzen bada**, hizkuntzen ordenari dagokionez, irizpide orokorreari jarraitzea.
- Ahal den neurrian, **atal elebidunek euskaraz bakarrik idatzitako idatziak** sortu ahal izango dituzte, eta beste atal batzuetara bidali, betiere atal horietako lankideek beren hizkuntza-gaitasuna bermatuta badute.
- **Hizkuntza irizpideen betetze-mailaren jarraipena** egitea.

2.2.2 arloa. KANPO-HARREMANAK

Sektore publiko zein pribatuko langileekin izaten diren harremanetan euskarak zer nolako presentzia daukan aztertu da arlo honetan.

2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.			
		Hasierako egoera %		Aurreikuspena %.....
		Euskara		Euskara
		43,68		43,68

EGOERA

Euskararen erabilera beste administrazioekin ez da handia. Badago aldea idatzizko eta ahozko ereduaren artean: ahozko jardunean euskarak baino pisu gehiago du gaztelaniak.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

Gure hizkuntza irizpideetan ezarritakoa betetzea, eta horren betetze-mailaren jarraipena egitea.

2.2.2.40*	Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie idatzizko komunikazioak.			
		Hasierako egoera %		Aurreikuspena %.....
		Euskara	Ele bietan	Euskara Ele bietan
		10	60	15 65

EGOERA

Beste administrazioekin euskararen erabilera ez da handia: oraindik ez dago bermatuta dokumentuak bi hizkuntzetan bidaltzea; gauza bera gertatzen da beste administrazioetako langileekin posta elektronikoaz komunikatzean.

Dena dela, oraindik ere ezin ditugu datu horiek modu sistematikoan jaso.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

Gure hizkuntza irizpideen arabera, Sektore Publikoko erakundeekin eta enpresa pribatuekin harremanak ohikotasunez euskaraz izateko urratsak ematea:

- Euskaraz komunikatu nahi dutela berariaz adierazi duten administrazioekin edo komunikazioaren gai nagusia euskara bera denean ere, euskaraz.
- Idatzien erantzunei dagokienez, euskaraz idatzitakoari euskaraz.
- Idatzia ele bietan edo gaztelaniaz jaso bada, ele bietan.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

Ele bietako aukera dagoenean, lanpostuaren 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna dutenak ikastaroa euskaraz egitera animatzea. Adibidez, Trebakuntzaren bidez eskaintako *Itzultzaile Neuronalari buruzko ikastaroa aukera ezin hobea izan daiteke* euren lanpostuari dagozkion lan-eginkizunak euskaraz egin ditzaten.

2.2.3.45	Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei.	
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
	Euskara	Euskara
	75	90

EGOERA

Urteak daramatzagu hizkuntza-trebakuntza eskaintzen udal barruan. Horrez gain, langileen beharrak eta gabeziak aztertuta, ikastaro laburrak eta espezifikoak antolatzen hasiak gara. (*Lehen hitza euskaraz, Itzultzaile neuronal...*)

Astean behin, langile guztiei “euskarazko pilula” helarazten zaie, non, besteak beste, euskara hobetzeko aholkuak, euskarari eta euskal kulturari buruzko berriak eskaintzen ditugun.

Langileek idatzitako testuak zuzendu ondoren, zuzenketei buruz hitz egiteko eta hobetzeko baliabideak eskaintzeko ahalegina egiten da.

Harrera linguistikoa egiten diegu langile berriei, euskaraz lan egiteko dauden baliabideen eta hizkuntza irizpideen berri emateko.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Administrazio hizkera argia** lantzeko ikastaro praktikoak antolatzea.
- **Langileen unean uneko beharrak aztertuta**, zereginen arabera, berriazko ikastaro laburrak antolatzea.
- **“Pilulen” formatua eguneratzea**, erakargarriagoak izan daitezen.

2.2.4 arloa. BALIABIDE INFORMATIKOAK

Langileek baliabide informatikoak euskaraz erabiltzeko aukera duten , eta euskaraz erabiltzen dituzten euskaraz erabilgarri daudenak aztertu da arlo honetan.

2.2.4.46	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.	
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
	Euskara	Euskara
	30,53	40

EGOERA

Gure hizkuntza irizpideen arabera, gure aplikazio eta programek euskaraz lan egiteko aukera bermatuko behar badigute ere, egun erabilgarri ditugun aplikazio ia guztiak gaztelaniaz daude, berriren bat izan ezik.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Erakundeak **baliabide informatikoak** euskaraz sortzea eta garatzea.
- **Gaztelaniaz dauden ohiko aplikazioak** euskaratzeko bideak lantzea.
- **Euskaraz erabilgarri daudenak instalatzen direla bermatzea** , langileak hori eskatzen badu.
- **Behar besteko hizkuntza gaitasuna duten langileek** euskarazko baliabide informatikoak erabil ditzaten sustatzea.
- **Hizkuntza klausulak ezartzea** ordenagailuak, aplikazio informatikoak, telefonoak eta antzeko baliabideak erosterakoan edo moldatzean.

2.2.4.47	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak.	
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
	Euskara	Euskara
	26,72	35

EGOERA

Langile ia guztiek gaztelaniaz erabiltzen dituzte baliabide informatikoak.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Langile askok gaitasuna dute euskaraz lan egiteko**; beraz, baliabideak eta ohiturak aldatzeko aukera badago.
- **Nahi duten langileei** baliabide informatikoak euskaraz erabiltzeko aukera bermatzea.
- Langileek baliabide informatikoak **euskaraz instalatzeko jarraibideak** izatea, hala erabakiz gero.

2.2.5 arloa. SORTZE-HIZKUNTZA

2.2.5.48*

Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.

Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
Euskara	Euskara
38,5	45

EGOERA

Euskara hutsez sortutako dokumentuen ehunekoa oso urria da.

Ohiko jarduera da, dokumentua gaztelaniaz sortzea eta itzultzea, bai itzultzaile neuronalaren bitartez, bai horretarako dugun aplikazioaren bitartez.

Itzultzaile neuronalak asko errazten du langileak berak bi hizkuntza ofizialetan egitea dokumentua. Hori dela eta, itzultzaile neuronalak ondo erabiltzeko trebakuntza-saioak abian ditugu, kontuan izanda gure Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideetan ezarritakoaren arabera, itzultzaile neuronalen erabiltzaileak izango dira sortu dituzten testuen eta testu horiek zabaltzeak izan ditzakeen ondorioen erantzule zuzenak.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatuta** duten langileak saiatzea zabaldu beharreko mezua bi hizkuntzetan sortzen eta ematen.
- **Itzulpengintza era arrazionalizatuan erabiltzea**, gure hizkuntza irizpideek jasotzen duten itzulpen protokoloa kontuan izanda, itzuli beharreko dokumentuak itzultzera bidali aurretik
- **Atal bakoitzak udal barrurako gaztelaniaz sortzen dituen dokumentuak** bildu eta euskaratzeko bidea egitea .
- **Kalitateko komunikazioa sustatzea**, estilo zuzen, egoki eta ulergarrian herritarrek Udalaren mezuak ahalegin handirik gabe uler ditzaten.
- **Komunikazioak gramatikal eta ortografikoki zuzenak** izango dira, eta hizkuntzaren bereko moldeak ere errespetatuko dira.
- **Idazki-ereduak** jartzea langileen esku.

Erabilera plan hau Udalbatzak eta erakunde bakoitzeko gobernu-organismoek onartzen duten egunaren biharamunetik 2027ko abenduaren 31ra arte edota hurrengo Plana onartzen den arte egongo da indarrean.

Eranskinak

AGINTE-TAULAKO ADIERAZLEAK

(Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan ezarritakoaren arabera, erakunde guztiek adierazle hauen balorazioen berri eman behar diote HPSri)

I.– Kudeaketa

1.– Euskararen kudeaketa orokorra.

- Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.

2.– Lidergoa.

- Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.
- Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezzen.

3.– Langileak.

- Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.

4.– Hizkuntzari buruzko klausulak.

- Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.

II.– Erabilera

1.– Zerbitzu-hizkuntza.

- a) Herritarrekiko harremanak.
 - Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.
 - Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.
 - Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.
 - Herritarrei euskaraz edota bi hizkuntza ofizialetan bidaltzen zaizkie dokumentuak– Herritarrek entitateari euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota entitatearekin komunikatzeko euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.

2.– Lan-hizkuntza.

- a) Barne-harremanak.
 - Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.
 - Entitate barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.
- b) Kanpo-harremanak.
 - Sektore publikoko beste entitateekin euskaraz izaten dira idatzizko komunikazioak.
- c) Sortze-hizkuntza.
 - Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak

Basauriko Udalaren Adierazleen Aginte Panela.

KUDEAKETA

1.- EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

- Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du
- Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.

2.- LIDERGOA

- Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.
- Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.

3.- LANGILEAK

- Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa plan eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute bere jardunean zeintzuk bete behar dituzten.
- Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.

4. GAITASUNA

- Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.
- Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko
- Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.

5.- EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

- Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldeei.
- Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du.

6.- HIZKUNTZA-KLAUSULAK

- Kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.
- Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza- klausulak txertatzen dira.

- Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.
- Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.

ERABILERA

ZERBITZU-HIZKUNTZA

1. IRUDIA

- Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.
- Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.
- Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.
- Erakundeak euskaraz dauka webgunea eta sare sozialak.

2. HERRITARREKIKO HARREMANAK

- Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.
- Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.
- Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.
- Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.
- Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.
- Herritarrek euskaraz zuzentzen zaio erakundeari ahoz.
- Herritarrek euskaraz zuzentzen zaio erakundeari idatziz.

LAN-HIZKUNTZA

3. BARNE-HARREMANAK

- Lan-bilerak euskaraz egiten dira.
- Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.
- Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.
- Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.

4. KANPO-HARREMANAK

- Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.
- Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.

5. PRESTAKUNTZA

- Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.
- Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.
- Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei.

6. BALIABIDE INFORMATIKOAK

- Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.
- Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz dituzten baliabide informatikoak.

7. SORTZE-HIZKUNTZA

- Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.